

# E.A.J./P.N.V. ETA EUSKAL KULTURA

Garrantzi aundiko gertakizunak ospatzen ditu, aurtan P.N.V. delako eusko alderdiak. 1994 garren urteak asko esan nai du aberzaleentzat. Denen aurretik E.A.J./P.N.V. elkartearen sortzaileak, Sabino Arana'k jasotzen ditu txalo ederrenak, euskotar guztiz argia bezala, batez ere aberzaleen elkarte sortu zuelako.

Gaiñera E.A.J./P.N.V.'ek eun urteko Euskalerrria'ren edestia idatzi du. Ezin aztu bi gai nagusi oiek, Sahino eragilleak eta eun urteko edesti orrek ernan diote. Euskalerrria'ri indarra ta nortasun berexi bat.

Ezin da Euskalerrri'ko edestirik egin E.A.J./P.N.V.'ren aipamen luzerik idatzi gabe: asierak, zabal-kundea, Lizail-a'ko Estatutoa, guda, espetxean zigor-aldia, jaurlaritza, erbestean garai luzea, aberrian borroka, Gernika'ko Estatutoa ta abar. Ori dena mila ta milaka euskaldunen edestia da, gañera etorkizunari hegira ta zai dagona.

\* >, \*

Nola aztu ditezke orrelako lanak? Zoritzarnez gertatutako gauza da.

Orain dela gutxi, ikastolentzat liburu bernia sortu dute. Euskal kulturaren oñarriak agertzen dizkigute: oitura zarrak eta berriak, eresia, jauziak, idazleak, euskotarrak eta euskarazaleak. Liburua arrigarria ta polita benetan. Amets bat... baiño akats aundi batekin. Ez du Sabino Arana aipatzen, ezta ere E.A.J./P.N.V.'rik.

Ez dut liburuaren izenik emango. Ez diogu egilleari mesederik doai egin nai.

Orain galdera bat: gaur egun nola idatzi diteke liburu bat Euskalerrria'ri buruz, Sabino ta E.A.J./P.N.V. aipatu gabe? Ori egiteko buru ariña euki bear. Ez aztu orrelako asko ditugula Euskalerrria'n.

Orregatik gure edestia kultura biurtu bear dugu, bi arazoengatik. Bat; denak edestiaren aztarnak arki ditzaten. Bigarren; euskotar bakoitxak, oroigarria eskutondoan euki dezan. Bai, edestia naitanaiez kulturalizatu bearra dago. Nola?

Biderik egokiena E.A.J./P.N.V.'ren urteburu oiek, aitzakia bezala artuta, domiña edo medaloia sortzea da, ekintza berexi orren oroigarri ta ospekunde direlako. Domiña oiek gure edestia gaurkoratzen digute. Naiz edestiaren ospekundeak igaro, gelditzen zaizkigun ezaugarriak, oroigarriak dire. Ortarako dauzkagu domi-flak; gertakizun aundi batzuen orioigarriak bezala.

\* \* \*

Nazio aundiak eta txikiak, aberriaren edestia ospatzeko ta goi goian gogoan eukitzeko, urrezko, zillarrezko ta burni-gorritzko DOMIÑAK egiten dituzte. Kulturaren bidez edestiak bizirik irauten du sendietan. Etxean bitxi oiek gordeta eukita aberriaren emaitza ta zaletasuna pixten digute, orrekin gaiñera gure kultura sortzen dugu. Jakiña, ortarako gai berexiak bear.

E.A.J./P.N.V.'ren eunurtebetetzea ospatzen dugula, nola ez dute sortu alderdiaren arduradunak, sillarrezko ta urrezko DOMIÑAK, gure edestia, sendietan, gauza aundi bat bezala gogoratzeko, baita euskal kultura ereiteko?

Domiñaren aide batean, Sabino Arana'ren irudia jarri bear lukete eta bestean alderdiaren izkiak. Milaka aberzalek gogotik erosiko lituzkete. Utsune bat gelditzen da bete bearra, gure aberria indartzeko.

LATXAGA

## IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etserik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dauzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2<sup>o</sup> eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen gutztoi.